



TOLOSAKO
UDALA

INĀUTERIETAKO KONPARTSEK SAN ESTEBANGO FERIALEKUA ERABILTZEKO BALDINTZAK

Lehena. Eskaerak aurkeztea.

Ferialekua erabiltzeko eskaera orria bete eta erregistro bidez aurkeztu beharko da, abenduaren 13a baino lehen, Udaten:

- Presentzialki: Plaza Zaharra 6A -20400- TOLOSA – egunero 7:15 – 14:15 eta ostegunetan 19:00ak arte)
- Erregistro elektronikoaren bidez

Beharrezko datuak: ordezkariaren datu pertsonalak eta harremanetarako datuak, parte-hartzaile guztien izen-abizenak, konpartsaren izena, neurriak eta konpartsaren ezaugarri nagusien laburpena (konpartsaren gaia, ikuskizun mota, etab.)

Bigarrena. Partzelen esleipena.

Eskaeren artean, lehenasuna izango dute Bellota pabiloian dauden *Tolosako Iñauteritako Karrozak* elkartearen konpartsak. Hauei esleituko zaizkie lehenik partzelak. Soberan geratzen diren partzelak, gainerako eskatzaileen artean banatuko dira.

Partzela baino eskaera gehiago jasoz gero, zozketa egingo da eta zerrenda osatuko da. Partzelak zozketaren hurrenkeraren arabera esleituko dira, partzelatutako plaza guztiak bete arte. Zozketa hori abenduaren 17an egingo da, Antonio M^a Labaien Kultur Etxean, 19:00etan.

Hirugarrena. Giltzak jasotzea eta fidantza.

Giltza jasotzeko, Ferialekua erabiltzeko, eskaera orrian, baldintzak onartzen dituela sinatu beharko dute eskatzaileek, eta 150 euroko fidantza ingesatu izanaren agiria aurkeztu beharko du talde bakoitzak. Diru-sarrera egiteko datuak:

- Kontu korrantea (Tolosako Udala): ES45 2095 5067 10 1060024816
- Azalpena: Ferialekua eta izen-abizenak

Fidantza horiek modu solidarioan kudeatuko dira eta Ferialekuan sor daitezkeen kalteei aurre egiteko erabili ahal izango da.

Giltzak jasotzeko epea: abenduaren 20tik aurrera, Antonio M^a Labaien Kultur Etxean, 9:30-13:30 eta 16:00-20:00.

Fidantzaren itzulketa 2020ko martxoaren 16tik aurrera eskatu ahal izango da, erregistro bidez (Udaten), eskaera orri orokorra erabiliz.

Laugarrena. Konpartsaren ordezkaria udalarekin harremanetan egongo da.

Konpartsako kideek adinez nagusi izan behar dute. Adin txikikoak badira, beren gurasoek ordezkatzeko dituzte udal honen aurrean.



Bosgarrena. Baimenak eskuetsitako pertsonen eta konpartsek lagatako espazioa erabili beharko dute bakar-bakarrik lagatzearen helburuetarako, hau da, konpartsen plataformak eta tramankuluak egiteko, eta espazio horretan ez da baimenduko beste inolako jarduerarik.

Seigarrena. Baimenaren titular diren pertsonen egindako jardueretan, laneko arriskuak eta laneko osasuna prebenitzeko neurriak zorrotz errespetatu beharko dituzte. Alde horretatik, udalak edozein momentutan egin ahal izango ditu bere ikuskapenak, aipatutako araudia betetzen dela bermatzeko.

Zazpigarrena. Erabiltzaileek saihestu beharko dute arrisku, ausarkeria, zuhurgabekeria edo arduragabekeria egoera oro, eta udal honen eta hirugarrenen aurrean erantzun beharko dute baldin eta baimen honetan xedaturikoari jaramonik egiten ez badiote.

Zortzigarrena. Baimena dutenek erantzun egin beharko dute egiten duten jardueraren ondorioz, edo soilik espazioa okupatzearen ondorioz, egindako kalteengatik (dela pertsonen dela ondasunen egindakoak). Alde horretatik, udal honi nahiz hirugarrenen egindako kalteengatik erantzun egin beharko dute. Erantzun egin beharko dute, orobat, pertsonen egindako kalte eta lesioengatik, halakorik egiten bada, pertsona horiek espazioaren eta instalazioen erabiltzaileak izan edo Ferialekuarekin zerikusirik ez duten beste batzuk izan. Pertsonen lesioak edo ondasunen kalteak eginez gero, ordaindu beharreko kalte-ordainak izango dira bakar-bakarrik baimenaren titularren kontura, zeinek udal hau erantzukizun guztietatik salbuesten duten, eta ez da beharko frogatzeko elementurik.

Bederatzigarrena. Espazioa erabiltzen duten pertsonen beti errespetatu beharko dituzte udal zerbitzu teknikoek emandako jarraibideak. Halaber, honako agindu hauek errespetatu behar dira:

- a) Udalak Ferialekuko tokiak banatuko ditu jasotako eskaera bakoitzaren beharrak kontuan harturik.
- b) Udalak Ferialekuko giltza bat emango du emandako baimen bakoitzeko, eta ezingo da giltza horren kopiarik egin.
- c) Ferialekuko ateak beti itxita egon behar du, eta debekatuta dago bertan egiten den jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsonak sartzea.
- d) Emerjenzizko ateak Ferialekutik ateratzeko erabili daitezke, soilik.
- e) Azkena ateratzen denak itzali beharko ditu koadroko argiak.
- f) Debekatuta dago espazioaren barruan ibilgailuak aparkatzea.
- g) Udalak mugatu edo debekatu ahal izango du instalazioetara sartzea, interes publikoko arrazoiak direla eta.
- h) Konpartsako kideentzat edo beste pertsonentzat arriskutsuak izan litezkeen elementuak, dela eraiki eta biltzeko garaian, dela jendaurrean erakusteko garaian, saihestu behar dira.



TOLOSAKO
UDALA

- i) Plataformen eta Ferialekuaren hormen arteko gutxieneko tartea 1,20 metrokoa izan behar du.
- j) Ferialekuko hormatik neurtuta, 1,20 m zabal den lerro edo ibilbide batek libre egon behar du, jendeak arazorik ez dezan irteeretako ateetara eta BIEtara jotzeko.
- k) Plataformek ezingo dute irteerak eta BIEak oztopatzen duen inongo objekturik jarri.
- l) Ezingo da jarri segurtasun elementuak oztopatzen dituen objekturik.
- m) Ezingo da sartu produktu suikorrik.
- n) Erabilitako margoak ur-pinturak izan behar dira.
- o) Ezingo da Ferialekuan surik egin ezta txinpartarik ateratzen duen erremintarik erabili ere.
- p) Ferialekua garbi mantendu behar da une oro.
- q) Ezingo da ukitu Ferialekuko segurtasun-elementurik, non eta beharren bat sortzen ez den.
- r) Ez da entxuferik gainkargatu behar, babesek salta ez dezaten, eta eguneko lana amaitutakoan, guztia deskonektatuta utzi behar da.
- s) Ferialeku barruan jendea dagoen bitartean, larrialdiko ateak barrutik irekiko dira, giltzarik gabe, atearen heldulekuari bultzata.
- t) Udalak dei egiten duen bakoitzean konpartsa kideren batek erantzun behar du.
- u) Larrialdietan:
 - Edozein eratako larrialdian, eraikinak kasu hauetarako dituen pultsadoreetako bat sakatu behar da, udaltzainei deitu behar zaie (943675858 edo 686965158) edo 112ra, eta eraikina hustu egin behar da.
 - Larrialdian, norbaitek gelditu behar du zain, harik eta laguntza etorri arte.

Hamargarrena. Jarduera bukatutakoan, baimenaren titularrek elementu guztiak erretiratu behar dituzte eta Ferialekua txukun utzi, jaso zuten bezala. Alde horretatik, udalak eman ahal izango du dagokion exekuzio-agindua, baita agindutako eginkizunak modu subsidiarioan exekutatu ere, baimenaren titularren kontura.

Baimenaren indarraldia martxoaren 16a artekoa izango da, eta ordutegia: 08:00-23:00. Erabiltzaileek otsailaren 26 eta martxoaren 16 artean espazioa hustu eta garbitu egin behar dute. Martxoaren 16rako konpartsa guztiak Ferialekua utzi eta giltzak entregatu behar dituzte Antonio M^a Labaien Kultur Etxean.



TOLOSAKO
UDALA

Hamaikagarrena. espazioa erabiltzeko baimena prekarioan ematen da; beraz, udalak edozein unetan utz dezake baliorik gabe, interes publikoko legezketasun-edo egokitasun-arrazoiengatik.

Halaber, baimenaren baldintzak ez betetzeak, beraiekin batera, ekarriko du baimenaren baliogabetzea eta espazioaren erabilera bertan behera uztea, interesatuari entzunaldia eman ondoren, kalterik egin gabe kasuaren arabera bidezkoa den zehapen-prozedurari.

Hamabigarrena. Gertakaririk edo edozein arrazoi dela eta, udalak eskumena dauka edozein baimenen baldintza aldatzeko edota gehitzeko.

Hamahirugarrena. Emandako baimenak izaera administratiboa duenez, Tolosako udalak ematen dituen ebazpenak berehala betearazi beharko dira bide administratiboari amaiera ematen badiote, bide horretan errekurrituta daudela kontuan izan gabe.

Emandako baimenarekin zerikusia duen eztabaida oro administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan konponduko dira.